



Jakingo duzuenez, Mugimendu Feministak ELA, LAB, STEILAS, ESK, EHNE, Etxalde eta CGT sindikatuekin batera hurrengo azaroaren 30ean Zaintza eskubide kolektiboaren alde Greba Orokor feminista deitu du. Izan ere, zaintzarako eskubide kolektiboaren aldeko apustua egin nahi dugu; pertsona guztiek, bizitza osoan zehar, zaintza eskaini eta jasotzeko dugun eskubidea aitortua izan dadin.

Baina gaur egun zaintza etxe barruan kokatua dago batez ere, gure sistemak duen zaintza-plana ezkutukoa da; eta ondorioz, hein handi batean aitortzarik edota baliorik gabekoa. Gero eta merkantilizatuagoa, pribatizatuagoa eta feminizatuagoa eta arrazializatuagoa dago, emakumeok baikara zaintza lanak asumitzen ditugunak nagusiki eta etxeko-langileak dira zaintzaile guztien artean esplotaziorik handiena sufritzen dutenak. Izan ere, zaintza-lanak egiten dituztenen %80a emakumeak dira, eta baztertutako kolektiboek egiten dituzte gehienbat lan horiek (paperik gabe, babes juridiko eta ekonomikorik gabe...). Zaintza eskubide unibertsala izan arren, negozio esparru bihurtu da.

Zaintza eskubide kolektiboaren alde mugimendu feministak grebarako zerrendatu dituen aldarrikapenak geure egiten ditugu:

- Zaintza Sistema Publiko Komunitarioa aldarrikatzen dugu.
- Zaintza sektoreko lan baldintzak duindu eta babestea.
- Etxeko langileen esplotazioarekin amaitzea.
- Lan guztiak banatzeko 30 orduko lan astea ezartzea eta zaintzarako denborak bermatzea.
- Gutxieneko soldata 1400€tan ezartzea eta 1080€ko gutxieneko pentsioa.
- Erroldatzeko eskubidea, agroekologia babestea eta etxebizitza eskubidea.

Grebari gure atxikimendua emanez exijitzen dugu bizitzak akabatzen dituen sistema honen aurrean, Euskal Herrian bizitzak erdigunean jarriko dituen zaintza sistema publiko komunitario baten alde urrats berriak eman daitezen eta gure konpromisoa berresten dugu bide horretan lanean jarraitzeko.

ZATOZ A30EKO GREBA FEMINISTA OROKORRERA!!!

Zaintza eskubide kolektiboaren alde.

